

noaia

**“Koop-eratzan”,
esparru ekonomikoa
eta soziala
suspertzeko ekimena**

**Amiantoak herrian
izan duen eragina
aztertu dute**

**Proiektzioak eta
irteerak, Andatzaren
Mendi Astean**

Ez dadila harria
eten

Argazkia: Ibai Arrieta

**“Hutsune handia utziko du
Usurbilgo gaztetxeak”**

OSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

HILERRIKO LANAK:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN LEKUALDAKETA
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA
EDO EDOZEIN HILERRITIK
- IZAPIDE GUZTIETAZ ARDURATZEN GARA (OSASUN SAILA, UDALA...)
OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA
(ERREGISTRO ZB: F18)

- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN ERRAUSKETA
- GORPUZKI ETA HILOTZ-ONDARREN BATERAKETA, LAPIDAK

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



- BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. DENETAZ ARDURATZEN GARA
- Asegururik EZ duten familientzat **Usurbilgo beilatokia DOAN** (gure eskutik)

Arrobitxulo



**GAZTE-LOKALAK
ETA BIZIKIDETZA
partaidetzako prozesua**

*Azarroak 26, astezkena
19:00tan POTXOENEAN*

tailerrak



Usurbilgo Udala

Albistea iruditan

Aginaga elkarteko bazkideei, esker onez

Bazkideen eguna izan zen azaroaren 15ekoa, Aginagako Ataralde elkartean. 50 urte bete berri dituen soziedadeak, larunbatean ospatu zuten egun handia, aginagarrez inguratu. 1964ko apirilaz geroztik soziedadea bost hamarkadez zabalik, bizirik mantendu duten bazkideak eskertu eta omendu nahi izan zituzten. Aipamen berezia, bertaraturiko txalo beroak eta oroi-garri bana jaso zuten, elkarteko bazkide sortzaileek: Ramon Rezolak, Joxe Peñak, Joxe Antonio Pikabeak, Antonio Mayozeke, Vittoriano Furundarenak, Bittoriano Pikabeak, Joxe Mari Mayozeke, Periko Errastik eta Julian Bereziartuak. Ia denak gerturatu ziren omenaldira. Bertsolari eta trikitixa doinuek giroturiko bazkari baten bueltan amaitu zuten eguna.



Ramon Rezolak, Joxe Peñak, Joxe Antonio Pikabeak, Antonio Mayozeke, Vittoriano Furundarenak, Bittoriano Pikabeak, Joxe Mari Mayozeke, Periko Errastik eta Julian Bereziartuak oroigarri bana jaso zuten.

Bazkideen argazki historikoa

Erretratuen eguna izan zen larunbatekoa. Aspaldi, Aginagako elkarte ireki berritan atera zuten bazkideek taldeko argazkia. Mende Erdiko ospakizunak, irudi hura eguneratzeko baliatu zuten aginagarrek.

Albiste honen ondoan duzue, Ataralde soziedadeko hasierako eta egungo bazkideen taldeko argazkia.

Argazki historikoa. Ondo begiratu eta gure memorian gorde beharrekoa. 50 urteotan jendartean eman diren zenbait aldaketa islatzen baititu irudiak; belau-

naldi berrien etorreraz gain, emakumeen parte hartzea elkarrean. Inguruotan, eta gai honetan, Aginagako elkarte aitzindari dugu.

Duela hamar bat urtetik, soziedadeak atek zabalik ditu herritar guztiak. Zorionak!

Laburrean

Marisa Alejandroren aurkako epaiketa

2007an Seguran Ezker Abertzalearen aurka izandako polizia operazioari loturiko epaiketa urtarrilaren 12an hastekoa da. 23 lagun atxilotu zituzten, tartean, Marisa Alejandro. 3 urte izan zuten espetxean, 2010eko apirilean aske utzi zuten arte.

Osakidetza, greba egunen atarian

Greba eguna deitu dute Osakidetza sindikatuek, ostegun honetarako, azaroaren 20rako Gipuzkoa osoko osasun etxeetan. Lan gatazka bideratzen ez bada gainera, abenduaren 4an greba orokorra egingo da Osakidetza osoan.

Igande honetan, batzarra Erroizpe elkartean

Urteko batzarra ospatuko dute, azaroaren 23an, goizeko 11:00etan Txokoaldeko elkartean bertan. "Elkarteko zuzendaritzak dei egiten die bazkideei etor daitezten, urteko martxaren berri emango baita, diru kontuekin batera", elkartetik adierazi dutenez.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

Toallitak

Ama izateak bizitza aldatzen du. Eta hori esanda askok zera pentsatuko duzue: “Egia. Maitasuna, loa, lagunekiko harremanak, bikotea, poza, ardura, jolasak, titia, irrifarrak, aitona-amonak, lana, ... horiek denak aldatzen dira hankagorri bat iristen denean”. Eta nik baietz esango dizuet, hori egi handia dela, baina oraingo honetan amatasunaren ondorioz ezagutu eta nire bizitza aldatu zuen produktu bati buruz hitz egin nahi dudala: TOALLITAK. Toallitak?!! Bai, ba. Toallitak.

Zure bizitzan ixilpean sartzen dira sortuak izan diren helburu jakin horretarako: hankagorriaren ipurdia garbitzeko, alegia. Baina segituan hasten dira nabarmentzen, izan ere, txikiaren popako azala babesteko bilaketa heroikoan mota guztiak probatzen dituzu; PH naturaladunak, alkoholik gabekoak, Aloe Vera-rekin, ekologikoak, Activity eta Pozikitivity ere bai. Txikien garbitasunean katedratiko bihurtzen zara goizetik gauera, eta toallitetan Masterduna. Hasieran, seme/alabaren aldagela lekuan egoten dira,

lasai, ezer gertatuko ez balitz bezala. BAINA hilabete batzuetara, egongelan, paseatzeko aulkitxoan, zure poltsan (diruzorroa, txupetea eta klinexekin batera) eta deskuidatzen bazara, kotxeko dokumentazioaren ondoan ere badituzu.

ZERGATIK? Beraien eraginkortasun eremua areagotzen hasten direlako, eta eginbehar fisiologikoez gain, erabilera anitz eta zoragarriak topatzen dizkiozulako. Adibidez: Abixatu gabe aita-amaginarrebak bisitan datoz eta etxeak txerrikotia ematen du? LASAI! Lurrean

sakabanatuta dauden jostailu guztiak armairuan ahal bezala sartu, toallita batzuk hartu eta komuna eta sukalde “paxara” egin bixkor-bixkor. Ez dira sekulako dizdirarekin geratzen, baina aizu, une kritikori gaintzeko adina bai. Edo beste hau: ekitaldi/afari/bilera garrantzitsu bat daukazu eta azken unean konturatu zara larruzko zapatak ajatu xamar dituzula? TRANKIL! Toallita pare bat hartu, gaintetik pasa eta lixto, zure itxura, ezinhobe!

Gaur egun ezingo nuke beraiak gabe bizi, aitortzen dut. Toalliten yonkia naiz.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Ika-Mika

Iruzur gehiagorik ez San Marko mankomunitatean

Astigarraga, Hernani, Lezo Oartzun, Pasaia eta Usurbilgo udalerriok hondakinak Atez Ateko biltzeko erabakia hartu genuenetik, gure herrien birziklatze tasak %30etik %80ra igo ziren oso denbora gutxian. Baina tamalez, erabaki hau ez zuen babestu San Markoko mankomunitatea modu ez-naturalean gobernatzen duen Denis Itxaso PSEko kideak eta lehen unetik Atez Ateko Bilketaren kontra jarri zen.

Sei udalerrri hauek subiranoki hartutako erabakiaren kontra egin ezinik, hauek ekonomikoki zigortzea erabaki zuen. Nola ordea? gure herrietako atez ateko bilketaren gastu guztiak gure gain hartzera behartuz eta, hori nahikoa ez balitz, gainerako udalerrien (Donostia, Errenteria, Lasarte eta Urnieta) edukiontzien bidezko sistema denon artean

ordainaraziz.

Jokabide honen aurrean Astigarraga, Hernani, Lezo, Oartzun, Pasaia eta Usurbilgo udalerriok San Marko mankomunitateko aurrekontuei helegitea jarri genien, gure herriek ordaindu beharreko kopuruak ez zetozelako bat jasotzen genituen zerbitzuekin. Eta helegitea jartzearekin batera, mankomunitateak luzatzen zizkigun hainbat faktura geldiaraztea erabaki genuen, sei udalerririk mankomunitatearekin sinatutako hitzarmenak bete zitezten aldarrikatze.

Egunotan Denis Itxasok, berriz, gure herriei buruzko informazio faltsua argitaratu du, zorraren zenbatekoa puztuz eta arazo honen aurrekari eta testuinguru isilduz; izan ere, beti egon gara gure partea ordaintzeko prest, baina soilik jasotzen ditugun zerbitzuei aurre

eginez, San Marko Mankomunitateko batzarrak onartu zituen hitzarmenetan jasotzen den bezala.

Mankomunitatearen fakturak hitzarmen hauen arabera egokitzeke eskaera egin diogu Denis Itxasori behin eta berriz, baina bere ezezkoarekin egiten dugu topo beti. Izan ere, Mankomunitatea bere kortijoa bailitzan gobernatzen baitu, erabakiak dekretuz inposatuz eta modu artifizialean mantenduz herrien arteko desorekak. Atez Ateko Bilketaren aurka ahal zuen guztia egingo zuela esan zuen eta formula aurkitu duela uste du: atez atekoa egiten dugun herriak ekonomikoki zigortzen gaitu, gainerako herrien edukiontzien bidezko bilketaren gastuak ordainaraziz; sistema horrekin ezinezkoa denean %50eko birziklatze mailatik igarotzea.

San Marko Mankomunitateko

lehendakaritzan Denis Itxaso PSEko kidea jarri zutenean, PNV-k eta PP-k babestuta, argi geratu zen zein izango zen bere jokabidea. Orain diputaziorako bere hautagaitza aurkeztean, garbi ikusten dugu politika atzerakoen morroi bihurtuko dela berriz ere, bere helburu politikoak lehenesteko.

Horregatik, Denis Itxasori eskatzen diogu alderdikeriak alde batera uzteko eta, behingoz, mankomunitate barruan dituen arazoak konpontzeko.

Gure herritarrei adierazi nahi diegu, aldiz, dagokiguna ordaintzeko erabateko prestutasuna daukagula, baina ez gaudela prest jasotzen ez dugun zerbitzu batengatik ordaintzen jarraitzeko.

Astigarraga, Hernani, Lezo, Oartzun, Pasaia eta Usurbilgo alkateak.

Eskualdea suspertzeko “Koop-eratzan”

ESKUALDEKO ESPARRU EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSPERTZERA DATORREN PROIEKTUA AITZINDARIA DA EUSKAL HERRIAN

Koop-eratzan egitasmoa aurkeztu zuten aurreko ostiralean, Lasarte-Oriako Zubigune Fundazioaren egoitzan. Eskualdeko ehun ekonomiko eta soziala suspertzera datorren proiektu aitzindaria Euskal Herri mailan. Eskualdeko udalak, Usurbilgoa tartean, bultzatu eta Lanbideak diruz lagundua. Ekintzailetza kooperatiboa sustatzea izango du helburu nagusia. “Eskualdeko ekintzaileei euren negozio ideia garatu, egikaritu eta abiatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak eskainiko dizkien zerbitzua da” Koop-eratzan.

Esku artean proiektu berri bat lantzen ari zaretenok, zuen beharretara egokituriko formazio zehatza jaso ahalko duzue; proiektuaren garapenaren inguruko gertuko jarraipen eta aholkularitza zerbitzuak baita. Zehatzago esanda, “formazio saio sakonak, formaziorako leku iraunkorra, elkar-lanerako espazioak, enpresen inkubategi eta hazitegia, finantziatorako erraztasunak, merkaturatzeko baliabideak, enpresen lehiakortasuna handitzeko zerbitzuak, euren arteko interkooperazioa handitzeko erraztasunak...”.

Sarea, ekintzaile eta eragileekin

Proiektuen arteko elkarlaguntza bultzatu nahi dute, talde dinamikak bideratu, eta hartara, egitasmo guztiokin sare moduko bat osatu bailaran. Sare horretan, ekintzaileak bakarrik ez, eskualdeko eragile sozioekonomikoak ere inplikarazi nahi dituzte. “Ekintzailetza sozial eta berdearen zerbitzu honekin, ekonomia sozial eta berdean oinarrituko den egitura ekonomiko berri bat garatzeko eta indartzeko lehen pausoa eman nahi dugu, pertsonen eta komunitateen beharrak, modu demokratiko, jasangarri eta berritzaileen bidez asetuko dituen egitura ekonomiko



Buruntzaldeko udal ordezkariak hartu zuten parte agerraldian, tartean, Alaitz Aizpurua udal zinegotziak.

KOOP-ERATZEN EGITASMOA

“Egitura ekonomiko berri bat garatzeko eta indartzeko lehen pausoa eman nahi dugu, pertsonen eta komunitateen beharrak, modu demokratiko, jasangarri eta berritzaileen bidez asetuko dituen egitura ekonomiko berri bat sortuz pausoz pauso”

berri bat sortuz pausoz pauso”, egitasmo honen bultzatzaileen esanetan.

Eskualdean langabetuei deialdi berezia egin zitzaizen aurkezpen ekitaldian. Proiektu berri bat gauzatzeko aukera paregabea eskura dutela nabarmendu nahi izan zuten. “Koop-eratzan” egitasmoan izen emateko epea azaroaren 28ra arte zabalik egongo da. Usurbilen, udaletxera deituta: 943 371 951 (Josune Mujika). Gai honi buruzko informazio gehiago, laster martxan izango den kooperatzen.net atarian aurkituko duzue.

Aldarri gunea izango du Euskararen Egunak

Ikastetxeetan egunean zehar, eta kalean arratsalde partetik aurrera. Euskararen Egunak aldarrikapenerako plaza izango du Usurbilen. Ikasleak eta herritarrak hitzorduotan parte hartzera animatzen dituzte, Udarregi Ikastolak, Zubieta eta Aginagako Eskola Txikiak, Usurbilgo Gaztetxeak, Zumarte Musika Eskolak, Dantza eta Kantu Taldeak, NOAUA! Kultur Elkarteak. Euskararen Eguneko egitarau zehatza, datorren astekarrian.

Odol emaileen eguneko bazkarian izena eman behar da alde zurretik

Antxeta jatetxean ospatuko dute odol emaileek haien eguna, abenduaren 8an. Bazkari baten bueltan. Otordurako aurrez eman behar da izena. Abenduaren 2a baino lehen, telefono zenbaki hauetako batera deituta: 943 363 102 (Agustina), 943 366 040 (Maite), 943 370 723 (Jero), 943 372 487 (Marisol).

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

TXAPELDUN TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

#Kilometroak15eko antolakuntza: “Ezustekoz

Astebete baino ez, ondo gordeak diren Kilometroak 15eko irudi eta logoa ezagutzera emateko. Sekretuok, lan talde bat gogotsu prestatzen ari den azaroaren 29ko ikuskizunean aireratuko dira. “Aurkezpen ikuskizuna zinez ederra izango da eta emozioak dantzan jarriko dizkigula ziurtatu dezakegu”, aurreratu diote antolatzaileek, NOAUA!ri eskaini dioten elkarrizketa honetan.

Kilometroak ekimenak lehen metroak egin ditu Usurbilen. Nola bizi izan duzue ibilbide hasiera hau?

Kilometroak15: Orion lekukoa hartu genuenetik gaurdaino, emozio biziz beteriko bidea ari gara jorratzen. Elkarlana, ilusioa, alaitasuna, kemena edota konpromisoa ibilbide hasieraren osagaiak izan ditugu. Kilometroak 2015en antolaketak eskatzen duen ardura eta konpromisoaz jakitun izan gara hasieratik. Honen adierazle, lehen unetik jasotako herri babesa eta auzolanera grina ikaragarria izan dela. Honetarako, lekukoa herriari eskaintzeko burututako ekitaldia gogoratze hutsa besterik ez dago. Finean, gogotsu ekin diogu Kilometroak 2015en antolakuntzari eta ekimena arrakastatsua izateko oinarri sendoak finkatzen gabiltza Udarregi Ikastola eta usurbildarrok.

Azaroaren 29ko aurkezpena begi bistan. Zertan dira presaktaketa lanak?

Iraila hasieratik batzorde bat buru belarri dabil aurkezpen ikuskizunaren prestaketa lanarekin. Gogo biziz ekin zioten aurkezpenaren antolakuntzari eta egiten ari diren ekarpena ere ikaragarria izaten ari da. Gure aldetik, aurkezpen ikuskizunerako aste bete falta den honetan, animo eta indarrak



Eñaut Lasarte KMK15eko koordinatzailea, Xabier Alustiza Udarregiko lehendakaria eta Mariaje Imaz zuzendaria.

AZAROAK 29, KIROLDEGIA

“Aurkezpen ikuskizuna zinez ederra izango da eta emozioak dantzan jarriko dizkigula ziurtatu dezakegu. Une horretan sortuko diren bizipenak ahaztezinak izango dira”

bidali ikuskizunaren azken hari muturrak lotzeaz arduratzen ari diren kideei. Biba zuek!

Kiroldegian izango dugun ikuskizunaz ezer aurreraterik bai?

Ikuskizunean, Kilometroak 2015 ekimenean jorratu nahi ditugun alorrak azaleratu nahi ditugu, esaterako, herrigintza eta herrikoitasuna, hezkuntza, Ikastolen eredia edota partaidetza. KMK2015en leloa eta arropa ere erakutsiko ditugu. Aurreratu dezakegun bakarra da, ezustekoz betea egongo dela aurkezpen ikuskizuna.

Zergatik egin behar dugu tokitxo bat gure agendan, azaroaren 29an Kiroldegira gerturatzen?

Aurkezpen ikuskizuna zinez ederra izango da eta emozioak dantzan jarriko dizkigula ziur-

tatu dezakegu. Une horretan sortuko diren bizipenak ahaztezinak izango dira eta sortuko dugun energia eta berotasuna, ezinbestekoa aurrean dugun erronkari erantzuteko. Hau guztiagatik, aurkezpen ikuskizunera bertaratzera animatu nahi zaituztegu.

Hilaren 30ean inauguratuko da denda. Zer aurkituko dugu bertan? Zer txoko edo funtzio bete nahi du saltokiak, “Kilometroak urte” honetan?

Aurkezpen ikuskizunaren biharamunean irekiko da Kilometroak 2015en denda. Kilometroak 2015 ekimenaren bidez, helburu ezberdinak zehaztu ditugu eta horietariko bat, hezkuntza proiektua berri eta garatzeko baliabideak lortzea da, baliabide ekonomikoak tartean. Hona denda irekitzearen arrazoia.

Saltoki honetan, batez ere arropa egongo den arren, bestelako hainbat produktu ere eskuragarri izango ditugu. Azaroaren 30ean edota aurrerago, Zubiaurrenea kalean irekiko dugun dendara gonbidatuta zaudete, atek parez pare irekiak topatuko dituzue.

Laguntza behar dute hainbat batzordetan

Dozenatik gora lan batzorde martxan. Zer nolako auzolan sareaz hitz egiten gabiltza?

Kilometroak15: Jende andana dabil Kilometroak 2015en antolakuntzan, Udarregi Ikastolarekiko, Udarregiren hezkuntza proiektuarekiko, euskara eta euskal nortasunarekiko eta herriarekiko ekarpen arduratsua burutzen ari diren kideak. Dagoeneko 500 kideko auzolan sarea osatu dugu, baina sarea zabaltzen joatea ezinbestekoa dugu. Izan ere, Kilometroak 2015 ekimena arrakastatsua izatearen gakoa, sare hau izango baita. Arestian aipatu bezala, orain arteko erantzuna bikaina izan da eta ziur gaude, poliki-poliki osatzen ari garen auzolan sareaz ere gauza berbera esango dugula.

Zertan behar da laguntza handiena?

Batzorde guztietan izango da ongi etorria ekarpen oro. Dena den, gaur gaurkoz, arropa salmentako batzordean (herriz herri irteerak burutzeko) eta zozketako batzordean dugu premia handiena. Horregatik, batzorde hauetan parte hartzeko gonbita luzatu nahi dizuegu.

betea egongo da aurkezpen ikuskizuna”

Kilometroak urte hau, aldaketa garaia izaten ari da baita ikastolan. Proiektu pedagogiko eta instalakuntza berriak estreinatu dituzue. Zer moduz egokitu zarete?

Kilometroak15: Garai berriak datoz hezkuntzarako! Ikusmolde pedagogiko-metodologiko berritzaileak, harreman-estilo nahiz espazioaren kontzeptualizazio desberdinak... Jendarte anitzean bizi gara, eta testuinguru honetan garatzen ari da ikastolako Hezkuntza Proiektua. Aurten ikastolan, ahalegin berezia egiten ari gara berrikuntza hauek guztiak barnebiduko dituen Hezkuntza Proiektua bultzatzeko eta bide honetan eman ditugun urratsak dagoeneko isla izan dute Haur Hezkuntzako geletan eta bertan gauzatzen den eskaintza pedagogiko-metodologiko berrituan, non espazioen antolakuntza erabakigarria izan den.

Beraz, KILOMETROAK 2015, hasi dugun proiektua lantzen jarraitzeko baliabideak lortzeko (ekonomikoak, giza-kapitala...) burutu nahi ditugu; izan ere, eskaintza hau bideragarria egingo duen azpiegitura



Lekukoa herrian da urritik. Azaroaren 29koak ospakizun kutsua izango du.

ANTOLATZAILEAK

“Herriko hezkuntza zerbitzuak aberasten jarraitzea dugu helburu eta honetan ari gara”

finantzatzeko laguntza ekonomikoa ezinbestekoa baitzaigu, eta azpimarratu beharra dago, emandako pausok etorkizunerrantz garamatzatela.

Ibilbide honek berehalakoan ekarriko du Lehen Hezkuntzan lehendabizi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ondoren, espazioetan aldaketak egitea,

egun hasi berri den proiektuari segida emateko.

Hauetz gain frontoia estaltzeko beharrezko finantzaketa lortu nahi dugu ere bai; finean herriko hezkuntza zerbitzuak aberasten jarraitzea dugu helburu eta honetan ari gara.

Aldaketa prozesu eta egokitzapen guztietan bezala, momentu eta sentipen ezberdinak pilatzen dira, baina erantzuna hitz gutxitan laburtu behar izanez gero, ilusioz eta zirrarez beteriko uneak bizitzen ari garela esango genuke. Edozein zailtasunaren gaintetik, pozik eta kementsu gaudela!

Azaroaren 29ko ikuskizunerako sarrerak, martxa onean

Azaroaren 29an larunbata, 19:00etan Oiardo Kiroldegian. 18:00etatik zabalik izango da kiroldegiko taberna. Oraindik sarrera gabe zaudetenok mug, agortzen hasiak dira eta. 2,5 eurotan salgai dituzue Udarregi Ikastola eta Haur Eskolako idazkaritzetan, Txirristra tabernan eta Labe-Goxo zein Aizpurua okindegietan.

Arropa salmenta batzordekoen bilera

Azaroaren 27an, iluntzeko 19:00etan Udarregi Ikastolan, bilduko da arropa salmentako batzordea. Batzordeak urtean zehar egingo dituen irteeri buruz hitz egingo da bertan.

Korrika 19ko materiala

Sudaderak, kamiseta manga motz eta luzeak, bufak, txanoak, motxilan bihurtzen diren poltsak. Guztia, neska, mutil eta haurrentzat. Korrika 19ko materiala salgai dute jada, Etumeta-AEK euskaltegian.

Gazte lokalak, helduen interesekoak

Bizikidetzeta eta gazte lokalen inguruan abian den parte hartze prozesuak helduen arreta piztu du. Gazte lokaletako jabeak, lokalon inguruan bizi diren herritarrek, eta gurasoak zeuden deituak azaroaren 12an iluntzean Potxoenean burutu zen bilera. Deialdiak erantzun zabala izan zuen, ondoko irudian ikus daitekeen moduan. Usurbilgo Udalak Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean, gazte lokale-tako erabiltzaileei eginiko galdeketeekin osaturiko diagnosis aurkeztu zuten. Hortik aurrera, bertaratu zirenen proposamen



Azaroaren 12an lagun asko batu ziren parte-hartze prozesuko bileran.

eta ekarpenak bildu zituzten.

Datozen asteetan, asteotan eginiko lanketaren ostean, bi

bilera egingo dira modu bateratuan gazte eta helduekin. Hauex da hitzorduon egutegia:

Azaroak 26, asteazkena

Tailerra gazte eta helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa. Adostasunak lantzea. 19:00etan Potxoenean.

Abenduak 10, asteazkena

Tailerra gazte eta helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa. Adostasunak lantzea. 19:00etan Potxoenean.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean.

Otsaila aldera eraitsiko dute Gaztetxea

LUR JABEAK BERTAN MAKINARIA SARTU ETA GAZTETXEA BOTATZEN HASTEKO ASMOA DU

Data jarria dago jada. 2015eko otsaila aldera bota dezakete Alkartasuna Kooperatiba ohian kokatua dagoen Gaztetxea. Eraikina botako dute bai, baina ez dute eraitsiko Gaztetxearen atzean dagoen egitasmoa. Gazte Asanbladak, gune batean edo bestean, lanean segi, herriak behar duen gaztetxe egitasmoa garatzen zein indarrak biltzen jarraitzeko asmoa du. Hileotarako ekimen zaparrada antolatu dute.

Zertan da gaztetxea eraisteko asmoa? Lanak otsaila aldera abiatzea espero da?

Usurbilgo Gazte Asanblada: Duela bizpahiru aste alkatearekin bildu ginen, informazio zehatza jasotzeko. Bere esanetan, otsailean lur jabeak bertan makinaria sartu eta gaztetxea botatzen hasteko asmoa du. Otsailean beraz hortik joan behar dugula buruan dugu. Duela bi urte Gaztetxean sartu ginean, hiru hilabeteko epean etxebizitzak eraikiko zirela esan zituzten. Okupazioa burutu zenean Udalak bere aldetik, lur jabeen salaketaren aurrean, ertzainek NAN zenbaki bat eskatu eta alkateak berea eman zuela. Alde horretatik gure eskerrak alkateari, berak hartu baitzuen erantzukizun osoa. Garai hartan, ueña heldutakoan, inongo erresistentziarik gabe bertatik joango ginela zioen paper bat sinatu genuen. Epe hura bi urtez luzatu da azkenean. Udalari ia gunerik ba ote duten galdetu diogu, ez dutela esan digute. Guk proiektuarekin aurrera jarraitu nahi dugula esan diegu. Ez dute inolako oztoporik jartzen. Alde horretatik udalaren jarrera ona eta baikorra da, zoriontzekoa. Beste udal batekin, aspaldi ginen kanpoan eta lehen egunean ez zituzten erantzukin euren gain hartuko.



2012ko abuztuan okupatu zuten 'sindikatu', Alkartasuna kooperatibaren egoitza izandakoa.

USURBILGO GAZTETXEA

“Bi urteok oso politak izan dira. Gaztetxea okupatu eta martxan jarri genuenean, gazte mugimendu barruan denok berriak ginen”

Gaztetxeak utzitako hutsunea, gazte askorentzat eskuraezinak izango diren etxebizitzek okupatuko dute...

Babes ofizialeko hainbat etxebizitza eraikiko dira. Babes ofizialeko etxebizitza horiek ez daude denon esku. Itxuraz zailtasun ekonomikoak dituztenentzako eginak daude,

baina benetan zailtasunak dituztenei ez diete erantzuten. Gazteentzako etxeak ez dira izango. Ez dugu uste etxebizitzak eraikitzeko garaia denik. Nahikoa eraiki da eta etxebizitza hutsak ere hor daude.

“Berria izan da guretzat”

Eraistearen aurrean, zer hausnarketa egiten duzue Gazte Asanbladatik?

Bi urteok oso politak izan dira. Gaztetxea okupatu eta martxan jarri genuenean, gazte mugimendu barruan denok berriak ginen. Mugimendu barruan ere hainbat hausnarketa izan ziren. Talde ezberdinak sortu ziren eta hasieran nahi-

ko zaila izan zen gaztetxea arrerera eramatea. Gero egonkoritu ginen. Urteotan Gaztetxeak bere ibilbidea izan du. Herriar ororen parte hartzea izan duten hainbat ekimen antolatu dira; tailerrak, zine emanaldiak, saltsa ikastaroak, afrikar dantzak, skaterrak goiko pisuan... Ekimen bakoitzarekin publiko ezberdina biltzen da. Gure Esku Dagokoen herri afarian 300 lagun bildu ziren. Banda Bassottiren gaua ere handia izan zen.

Harro gaude izan dugun bilakaeragatik. Zerbait berria izan da guretzat. Zerotik hasi ginen eta zer ikasia eman digu.

“Gaztetxea adin ezberdinetako herritarren bilgunea izan da”

Gaztetxerik gabe nolako herria irudikatzen duzue?

Hutsune handia utziko du. Gune autogestionatu bat da, edonori nahi duena egiteko aukera ematen diona. Ekimen batzuk jende askorengana iritsi dira, afari begano zein herrikoiek edo kontzertuak. Herritar multzo txikiagoak baina anitzak bildu izan dituen tailerrak ere antolatu izan ditugu. Bestal-

de, herrian geroz eta musika talde gehiago dago. Gaztetxean kontzertua antolatu eta eskaintzeko aukera dute. Astero ere gazteak asanbladan biltzen gara jakinik, hori guztia kenduz gero hutsune handia egongo da. Lehen bakoitza bere lokalean itxita geratzen zen. Nor bere koadrilara mugatua. Asko jota ondoko koadrilekin hartu emanetan zegoen, lokala

koadrila bat baino gehiagorekin parteka-tzen bazen. Gaztetxea al-diz, adin ezberdinetako herritarren bilgunea izan da. Gaztetxea gauza askotarako irekia dago eta herriak behar du. Egungo aisialdia kontsumora bideratua dago ehuneko ehunean. Azkenean alternatiba horiek sortzeko espazioa da Gaztetxea, baina era berean alternatibak sortzeko espazio horretan biltzen gara.

“Eraikina aldatuko da, baina proiektuak aurrera jarraituko du”

Eta Gaztetxea bota ostean zer?

Usurbilgo Gazte Asanblada: Ez dadila haria eten. Aldarri horrenpean, ekimen zaparrada antolatu dugu. Gazte Asanbladaren asmoa, gazte mugimenduarena oro har, proiektuarekin aurrera jarraitzea da. Horretan ari gara. Ekimen zaparrada honekin, termometro lana egin nahi dugu. Gazteriak zer behar dituen, zerk mugitzen gaituen ikusi. Gure artean jende berria sartzen ari denez, taldea ezagutzera eman. Eta taldea ahal dela, mantendu edo handitu. Horren arabera erabakiko dugu gero, nondik jo. Hor badugu aurrera begirako erronka; gazteekin batera, eragileen bilgune aktibo bat izatea, eta bertan etenik gabe alternatibak eraikitzen joatea.

Gaztetxea ireki zenetik, 2 urteren ostean, esan liteke gazte mugimendu antolatu bat duela Usurbilek?

Batetik Ernai dago, eta bestetik Gazte Asanblada. Gazte mugimendua bi eragileon artean egituratua dago. Hasieran gazte mugimenduan hausnarketa fasea bizi izan genuen, ez zen erraza izan. Indarrak hartu eta aurrera egin genuen.

Haria ez da etengo beraz?



Aurreko astean Banda Bassotti taldekoak aritu ziren gaztetxean.

USURBILGO GAZTETXEA

“Gaztetxea ez da sindikatu zaharrera mugatzen, horren atzean proiektu bat dago. Proiektu bat da espazioaren ginetik”

Haria ez da etengo. Aurrera jarraitu nahi dugu. Eraikina aldatuko da, baina proiektuak aurrera jarraituko du. Herri batek gaztetxe bat behar baitu. Gaztetxea ez da sindikatu zaharrera mugatzen, horren atzean proiektu bat dago. Proiektu bat da espazioaren ginetik. Aurrera jarraitu nahi

dugu, baina aurrera jarraitzeko gure indarrak neurtu nahi ditugu. Bi urte pasa eta gero, proiektu orokorrako, politago bat, eragile ezberdinek parte hartuko duten proiektua izatea nahi genuke. Herritik gertuago bada, askoz hobeto.

Lur jabeei zer esan nahi zeniekete?

Irabazi ekonomikoen ginetik, herriaren ongizatea dago. Herriak benetan proiektu alternatibo hauen beharra du. Ez dago, herritik sortzen den espazio ireki batek herriari eskaini diezaiokena ordaintzeko adina diru kopururik.

Aspaldi planeatuak zeuden 96 etxebizitza eraikiko dira

“Orain bai, badirudi Babes Ofizialeko eta Tasatutako etxebizitzak egikarrituko direla epe laburrean”, otsaila aldera, Udaletik adierazi dutenez. Hiru hilabete barru espero da gaztetxea eraisteko obrak hasia. Egun Usurbilgo Gaztetxeak duen kokagune horretan, aspaldiko planeamendua garatuko da. Lehen fasean 4 bloke eraikiko dira, 96 etxebizitza gutxira; babes ofizialeko 48

etxebizitza eta beste 48 etxebizitza tasatu. “Etxebizitza horiek eraikiko diren zoruak dago gaur Gaztetxea eta ezinbestekoa da eraisketa lanak burutzea etxebizitza horiek egiteko. Horrela adierazi zitzaizkien gazteei okupazioa eman zen momentutik”, adierazi dio NOAUA!ri, Mertxe Aizpurua alkateak. Bere esanetan, azken bi urteotan, Udalak bitartekari lana egin du gazteen

eta lurjabeen artean; “besteak beste, planeamendu honen inguruko informazio berria izan denean eman zaie gazteei denboraz izan zezaten informazio gutxia, adostu genuen bezala”. Azken aldiz duela gutxi bildu dira Gaztetxeko eta udaleko ordezkariak, Alkartasuna Kooperatiba ohia eraistearan inguruan Udalak zuen informazioa gazteekin partekatzeko.

“Ez dadila haria eten”

Azaroak 22, larunbata

■ 22:30 Kontzertu gaua: Juanantzoneko okupak, Kaotiko eta Dj Kankar. Sarrera: 6 euro.

Azaroak 30, igandea

■ 18:30 Herritar nahiz eragileei zuzenduriko bilera irekia Potoxoenan, urtarrilaren 3an ospatuko den Jon Uriberen aldeko omenaldi eguna antolatuzko.

Abenduak 6, larunbata

■ Kaos y lentejas jaialdia.

Abenduak 11, osteguna

■ 20:30 Afari beganoa, borondatearen truke.

Abenduak 13, larunbata

■ Andatza M.K.T.-rekin eta Kantu Taldekoekin, Andatza ingurura mendi buelta. Ondoren, babarrun jan paregabea gaztetxean, Kantu Taldekoekin.

Abenduan zehar

■ Haur eta gaztetxoei zuzenduriko ekimenak.

Urtarrilak 3, larunbata

■ Jon Uribe gure artetik joan zeneko lehen urteurrenari; Jon-txuren omenezko eguna.

Amiantoak Usurbilen duen eragina aztertu du Udalak

Usurbilen badira amiantoak duten eraikinak. Egun debekatuta dago erabiltzea, baina urte luzez, eraikinetako hormen barnealdean, isolatzaile akustiko funtzioak egiteko baliatu izan da. Hormen barnealdean egonik, arriskurik ez du suposatzen herritarrentzat. Arriskutsua izan liteke ordea, eraikinen eraberritze edo mantentze lanak tarteko, maiz amiantodun produktuekin aritu beharra izaten duten langileentzat, zuntzak atmosferara aireratu baitaitezke, eta gizakiak, arnastuz, edo ukituz gorputzean barneratu. Langileok, behar besteko segurtasun neurriak hartzen ez badituzte, epe luzera, osasun arazoak izan ditzakete; biriketako minbizia esaterako.

Kezka eragin ohi duen gaia izanik, amiantoak non eta zenbatean dagoen lokalizatu, identifikatu, behar bezala kudeatu eta edozein arrisku egoera prebenitzeko neurriak hartzea aholkatzen du, berriki, Sengeos enpresak Usurbilgo Udalarentzat egin duen gai honen inguruko azterketak.

Udalerri honetako eraikin publiko zein pribatuetan eta ur horniduran amiantorik ba



Gaur egun debekatuta dago baina urte luzez eraikinetako hormen barnealdean ipini izan zen amiantoak.

AZTERKETA

“Amiantoak izateko arrisku altuena 1940-1990 artean altxatu zireneko eraikinetan dute”

ote den aztertu dute. Bereziki, amiantoak izateko arrisku altuena, 1940-90 artean altxatutako eraikinetan dute. Arrisku ertaina aurrez, eta arrisku txikia, urte tarte horren ondoren eraikitakoak. Aztertzaileek zer aurkitu duten? Laburbilduz:

■ **Eraikin publikoak:** 8 eraikin publikoetan amiantozko hondakin kopuru txikia aurkitu dute.

■ **Eraikin pribatuak:** 292 eraikin aztertu dituzte, horietatik 135 eraikinetan amiantozko egituraren bat aurkitu dute, baina horrek ez du esan nahi gainerako eraikinetan amiantorik ez dutenik. Azterketak hain zuzen, baserri edo txabolen jabeekiko kezka agertzen du. Sarri, jabeek bere kontutik egin ohi dituzte eraikinotako konponketa edo mantentze lanak, egituretan amiantorik ba ote den,

eta hala bada, amiantoak modu desegokian kudeatzeak eragin ditzakeen kalteen jakinaren gainean egon gabe.

■ **Ur hornidura sarea:** Aurkeztu berri den azterketako emaitzen arabera, kalitate oneko ura dugu herrian. Alde horretatik lasai egon gaitezke. Gainera, ur hornidura sarea neurri handi batean eraberritua dago. Halere, zati batzutan egitura zaharrak ditugu oraindik. Udalak esku artean duen azterketak, egitura zatiok aldatzea aholkatzen du.

Azterketako emaitzak eskutan, hainbat gomendio egin zaizkio Usurbilgo Udalarari

Batetik, amiantoak izan dezaketen eraikinen jabeak, gai honen inguruan informatuak egotea aholkatzen du. Informazioa helarazteko hain zuzen, amiantodun hondakinak nola manipulatu, bildu eta garraiatu, datuok jasokoz lituzkeen gida bat argitaratzea ere aholkatzen zaio Udalarari.

Legedia eskutan, hondakin arriskutsuak gainerako hondakinetatik bereizita kudeatu behar baitira.

Lanak ezin ditu edonork egin, baimendutako enpresek baino ez.

Amiantodun produktuekin lan egin behar dutenei, ha-

lako lanak egiteak dakartzen arrisku eta betebeharrak legalez ohartarazi eta edozein arrisku prebenitzeko neurriak hartzea ere gomendatzen da.

Eta proposamenik ere egiten zaio Udalarari; amiantoak manipulatzeko lanak baimendutako enpresek baino egin ezin

ditzaketenez, udal brigada arrisku enpresen erregistroan sartzea planteatzen du azterlanak.

Eta amiantodun egiturekin lan egin behar dutenean, zereginotarako beharrezko segurtasun neurriak eta baliabide material egokiak izatea.

Ricardo Crespo, Hernaniko Udalerako alkategai

2011z gerostik Usurbilgo Udalean PSE-EEko bozeramaile izan denak bere eserlekua utziko du legegintzaldi hau amaitzean. Ricardo Crespo herritarra, PSE-EEko Hernaniko udalerako zerrenda-burua izango da, 2015ean ospatuko diren udal hauteskundeetan. Ikusteko dago zein izango den PSE-EEren hautagaia Usurbilen.

EHBildu: "Programa lehenbizi, izenak ondoren"

Eta gainontzeko alderdietan, nola daude gauzak? Mertxe Aizpurua alkateak aditzera eman digunez, "udal hauteskundeetarako zerrenda eta alkatetzarako hautagaia nor izango den EHBilduren baitan mar txan jarri den prozesuaren ondorioa izango da". Oraindik ezin da esan, beraz, nortzuk joango diren zerrendan.

EHBilduko alkateak NOAUA!ri adierazi dienez, "oraindik sei hilabete geratzen dira legegintzaldi hau



Erdikoa da Ricardo Crespo. Denis Itxaso (eskubikoa) Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaia izango da.

bukatzeko eta zalantzarik gabe datorren urteko hauteskudeei begira lanketa txukuna eta egokia egiteko denbora badago. Orain programaren lanketa abiatu dugu eta zerrenda osatuko duten izenen gaintetik, programak du benetako garrantzia".

Bildu eta Aralar, elkarrekin

Programa horren lanketan ari dira parte hartzen Aralarreko kideak ere. Duela lau urte ez bezala, 2015eko

udal hauteskundeetan Bildu eta Aralar batera aurkeztuko dira, zerrenda bakarrean, Joxerra Furundarenak NOAUA!ri adierazi dioenez.

Hamaikabat, EAJ eta PSE-EEko hautagaien berririk ez, oraingoz

Inkesta modukoa udaletxean ordezkaturata dauden alderdien artean egin dugu eta Usurbilgo Hamaikabat, EAJ eta PSE-EEko erantzunak jaso ahala, emango ditugu aditzera.

EHBilduk legegintzaldiaren balantzea egingo du larunbatean

Herri progama osatzen joateko abiapuntua larunbat honetan ezarri du EHBilduk. Legealdiaren balantzea aztertuko dute jendaurrean, larunbat honetan, 10:00etan Potxoenean. "Herri progama osatzen joateko abiapuntua izango da hau eta usurbildar guztien ekarpenekin osatu nahi dugu datozen hilabeteetan".

"Ondo egin dena" izango da hurrengo legealdirako abiapuntu. "Baita erdizka egindakoak zuzendu eta gaizki edo egin gabe utzi duguna zuzentzeko konpromiso sendoak harilkatu behar ditugu". Datozen hauteskundeetan "aldaketarako bidea sendotzeko denon ekarpena behar beharrezkoa" dela dio Usurbilgo EHBilduk.

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU


INTZA
I LEA PA IN DE GIA
